

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Antimilitarista
Eguna /8**

ERREPASOA

**Amaitzear dagoen lege-
aldiari errepassoa /9**

LEINTZ GATZAGA

**Harrera ona dendak eta
turismo bulegoak /10**

Galdategi Eskola egiteko oinarriak jarri dituzte

Aretxabaletako Institutua handitu egingo dute. Udalak lur saila eman dio Eusko Jaurlaritzari, eta honek Galdategi Eskola egingo du. Galdaketan trebeak izango diren langileak prestatuko dituzte laster bertan.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 12
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 13
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Domeketan: 12:30

ARKARAZO
Domeketan: 11:30

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Hilabete honetan ez dago mezarik.

OHARRAK

BENIDORMERAKO TXARTELAK
Benidormera joango diren erretiratuek dagoeneko jaso ditzakete txartelak Basotxo elkartearen.

LIBURUTEGIA, ITXITA
Udal Liburutegia itxita egongo da apirilaren 17tik 27ra bitartean.

ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA
Zapatuan, hilak 12, 18:00etan hasita Eguzki-Alde elkartearen.

'CHI KUNG' IKASTAROA
Garapen pertsonala eta terapeutikoa lantzen dituen *Chi Kung* ikastaroa antolatu du Sadhana zentroak. Maiatzaren 5etik 30era, astelehenetan eta egubakoitzetan, 20:00etan. Informazioa, 943 71 41 91 telefonoan.

UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK
Kultura Sailak udaleku irekietan parte hartzeko begiraleak behar ditu. Curriculumak kultura etxera eroan, posta elektronikoz bidali kultura@aretxabaleta.net helbidera edo posta arruntez bidali helbide honetara: Kultura Saila; Otalora 1; 20550; Aretxabaleta. Era berean, udaleku irekietako zuzendaritza taldea osatu behar dute; hortaz, gura duenak curriculumean aipa dezala.

LORAMENDIRENAGENDA

KAFE ANTZERKIA
TRABENA TXOXA
antzezlana eskainiko du Goaz taldeak gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 12:30etan.

'BERBETA BERUA' LIBURUA SALGAI
Badihardugu elkarteak kaleratu berri duen *Berbeta berua* liburua salgai dago Loramendi Euskara Elkartearen. Hamar euro kostatzen da.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Liburutegiko 30. urteurrena ekitaldiekin ospatu zuten

1995eko apirilaren 3tik 11ra bitartean ekitaldi ugari egin zituzten Udal Liburutegiaren 30. urteurrena ospatzeko. Besteak beste, Lubaki bandak poesia emanaldia egin zuen eta Sarasua anaiek eta Juan Luis Lekunberrik *Fauna txiki bat bertso berritan* emanaldia egin zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kirrimarria"

Estilua, eztabaida, zaratsua batik bat.
—*Gaur gabian andra gizonok kirrimarran bat ibillirik izan bia dabe.*



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Unai Etxebarria
4an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Iñaki Carrillo
5ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
June Errasti
9an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Maritxu Anduaga
11n. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Josune Blanco
11n, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Ainhoa, Jose eta Argentina.



ARETXABALETAKO
Leire Alcalde
12an, 22 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagunaren partetik.



ARETXABALETAKO
Endika Martín
14an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Markel Uriarte
14an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Aitziber Arrese
14an. Zorionak eta muxu handi bat, lehenaguztien partetik.



ARETXABALETAKO
Lierni Castilla
15ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Van't Hoffen ilea'

Matias Malanda da nobela honetako protagonista. Funtzionarioa da eta Idus izeneko herrira joan da herritar batzuei inkesta moduko bat egitera. Ez dago argi zein den Matiasen lana, herritarrei herrikideren baten istorioak kontatzeko eskatuko die beretik gabe. Istoriu ugari batzen dira, beraz, nobelan, benetan Matiasen eginkizuna zein den argitzeko bidean jarriko digutenak.

Elorriagak umorea, absurdoa eta kontraesanak erabiltzen ditu behin eta berri, gauza asko ezkatatuz edo erdizka esanez, edo esan gabe zerbait azalduz. Aipagarriena idazleak berak sortutako estilo berezi hori da, *SPrako tranbia*-n jada erakutsi zuena.



VAN'T HOFFEN ILEA

Unai Elorriaga
Elkarlanean, 2003
218 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA


Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



MIRVAT

ATREBENTZIAEZPADA/ Irakeko erasuen berri jarraiketan dozu; uste dozu egixe kontetan duzkuela?




ANGEL SANTAMARÍA
Langillie

Bai apur bat bai. Telebista-ko albistegixekin jarraitu dot oin arte. Nire ustetan ez duzku egixe kontetan. Komeni jakien egixe kontetan daue bakarrik, eta hori gezurre izeten da.




IRAIDE ITURBE
Langillie

Bai, telebistan eta egunkarixetan jarraiketan dittut Irakeko barrixek. Guzurre edo egixe dan ez dakit. Telebistako irudixek eta argazkixek, behintzet, ez daue guzurrik kontetan.



GERMAN GLEZ. DE MARTIN
Erretiraue

Apur bat bai, jarraiketan dot. Gehixen be, Euskal Telebistako albistegixek ikusten dittut. Amerikannuek hor be eskue sartzen dauela uste dot, eta ezingo dogu dana siñistu.



ALAZNE AMEZTOI
Langillie

Bai. Esandako danak ez die siñistu biher; hala eta be, batzuek esandakuek beste batzuenak baiño samurrago siñisten dittut. Kazetarixek eurek be esaten daue zentsura haundixe dauela.



JOSE RAMON URRUTIA
Langillie

Beti be ikusten dittut telebistako notiziak, baiñe, egixe esan gerra kontuek gutxi jarraiketan dittut. Kontu-tako dana sekule be ezin da siñistu, eta gutxiu gerra denporan.



ARANTAZU DEL FRESNO
Langillie

Egixe esan oso gutxi jarraiketan dot. Telebista apur bat ikusten dot, eta garbi dau Amerikanuek manipulaziño haundixe egitten dabitzuela. Hala eta be, batzuk egixak izengo die.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK KORRIKAKO PARTE HARTZAILEEI Aste honetako txalo zaparrada, astelehenean, hilak 7, Korrika ekitaldian parte hartu zenuten guztiondako da. Ehunka lagun batu ziren euskararen aldeko aldarrikapen sendoa egiteko. Ume zein nagusi, guztiek erakutsi zuten korrika egiteko sasoi ona. Makuluekin ere hartu zuen parte herritar batek eta, noski, hark txalo bereziak merezi ditu. /A.L.

ETABARRUAN...

HEZKUNTZA /04

Galdategi Eskola

Galdategi Eskola egingo du datozen urteotan Eusko Jaurlaritzak Aretxabaletako Institutuan.

ELKARRIZKETA /05

Nerea Elorza

Poxpolin Gazte gazte-lekuko begiralea laster hasiko da lanean 12 eta 16 urte arteko gazteekin.

KIROLAK /06

Triatloi denboraldia

Antxintxikan Triatloi Taldeko aretxabaletarrak gertu daude denboraldia hasteko.

ASTEKODATUA

100

SINADURA BATU BEHAR DITUZTE ARETXA-KOEK

Aretxa Plataformak 100 sinadura batu behar ditu hauteskundeetan parte hartzeko. Apirilaren 3an jarri zituzten sinadura egiteko orriak udaletxean eta hilaren 8rako 170 sinadura zituzten.


BESTEKEESANA

Urgazle diploma ez dut zuzenean jasoko, Aste Santutako oporretan egongo naiz eta. Lagunen batek jasoko du nire partez, eta bestela, gordeko didatela espero dut. Hala eta be, diploma banaketa Pazko asten egitea ere... norbaiti bururatu egin behar zaio gero! Nik espero dut beste norbaitek ere huts egingo duela, eta hortaz, beharbada, ekitaldia atzeratu egingo dutela. Gainera, Jose Mari Satustregiren heriotza ere suertatu da, eta normala izango litzateke diploma banaketa atzeratzea.

Nik Satustregi ezagutu nuen, baina, ez nuen izan aparteko traturik berarekin. Baina, egia esan, oso pertsonai garrantzitsua izan da euskararen munduan; lan handia egin zuen.

MIRIAM URKIA
Arrasate Irratia/03-04-01

HERRITARRENBERBAK/ Xabier Sarasua



Gailurra, bideak eta bide-markak

Zirraragarria izan da Korrikarekin gure herrian eta ingurukoe-tan bizi izan duguna. Baina korrika ibili garen guztiok egunero eta aukera dugun guztietan euskaraz jarduten ez badugu, korrika ibiltzeak zer balio du?

Euskaldunon egunkariaren eta auziperatuen alde sortu den elkartasun uholdea eta babesa ere izugarriak izan dira. Baina euskaldunok egunero euskarazko egunkaria erosi eta irakurtzen ez badugu, emandako elkartasun eta bultzada guztiak zer balio du?

Batasunaren ilegalizazioaren aurrean ideia eta proiektu guztientzako lekua izango duen Euskal Herri autodeterminatua aldarrikatzen duen herri plataforma sortzea ere garrantzitsua da. Baina aldarrikapen hori bera egiten duten alderdiak ados jartzeko ahaleginik egiten ez bada, berme demokratikoak eskatzeak zer balio du? Euskal Herrian bizi dugun

bi aldetako etengabeko eskubide urraketa aurrean, alde bateko bidegabekeria soilik salatzeak zer balio du? Are gehiago, pentsaera politiko eta naziotasun sentimendu ezberdineko pertsonok bestearen sufrimendua onartu, kezka kontuan hartu eta etorkizunaz

“Korrika ibili garen guztiok egunero eta aukera dugun guztietan euskaraz jarduten ez badugu, korrika ibiltzeak zer balio du?”

elkarrekin hitz egiteko gai ez bagara, eskubide urraketa salatze hutsak zer balio du? Orain arte baino bakezaleago, solidarioago, demokrata-go, gutxiengoekiko begirune gehiagoko, lurraren maitaleago, marjinatu guzti-ki-

ko adeitsuago eta, jakina, alaiago eta biziago izateko ez bada, herri aske izateko borrokatzeak zer balio du?

Gaur Xalbadorren bertso batzuk entzun ditut, Mikel Laboaren ahotsean: “Martxa baten lehen notak”. Emozionatu eta gogo-berritu egin naiz. Hark sujeritutako bihotz epeltasuna, eskuzabaltasuna eta buru argitasuna behar ditugu. Hari, Txepetxi eta Oteiza zenari entzuten ikasteko garaia dugu.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Golo Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Txapelketa ugari

Por usaina hartzen hasita gaude, baina oraindik egun batzuk falta dira. Lehenengo aste bukaera dator, ekintzaz beteta etorri ere. Gaur, egubakoitza, Errasti anaiek Debarroko Pilota Txapelketako finala jokatu dute Bergaran azkoitiarren kontra. Bihar, ostera, Joseba Akizu eta Unai Gardoki pilotariak Zaramagako Txapelketako finala dute arrasatearren kontra. Zorte on lauroi!

Mus txapelketa ere aipatu behar, Elkartea Arteko Txapelketa dago eta bihar zapatua. Eguzki-Aldek antolatu du aurten, eta bertan elkartuko dira elkarte bakoitzeko txapelak. Onenek irabaz dezatela! Bihar Arantzazura oinez joango zarete; animo!; eta domekan Iruñean Korrikari agur esango diezuenoi ondo pasa eguna!

HEZKUNTZA/Instituto alboko 3.000 metro koadro eman dizkio Udalak Eusko Jaurlaritzari

Galdategi Eskola egiteko lursaila eman dio Udalak Eusko Jaurlaritzari

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletako Udalak lursaila eman zion joan den astean Eusko Jaurlaritzari, eta Jaurlaritzak Galdategi Eskola egitea konprometitu zen. Aretxabaletako Institutuak kudeatuko du eta, era berean, gure ibarreko eskaerari erantzuna emango dio eskola horrek.

Joan den astean sinatu zuten hitzarmena Aretxabaletako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak. Arrasate-Aretxabaleta Institutuak kudeatuko duen Galdategi Eskola egingo dute Udalak emandako lurretan.

UDALAK EROSITAKO LURRETAN

Aretxabaletako Institutua aspalditik dabil Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan Institutua handitzeko egitasmoa bultzatu guran. Horretarako, Aretxabaletako Udalak Institutu alboan dauden 3.000 metro koadro erosi zituen, Landeta baserriaren arto-soroak izandakoak, hain zuzen. Lur horiek Eusko Jaurlaritzari eman dizkio, eta horixe sinatu zuten, hain zuzen, Anjel Bergaretxe alkateak eta Iñaki Muxika Lanbide Heziketako zuzendariak.

ESKOLA, BI URTEREN BUELTAN

Galdategi Eskola egingo dute Udalak emandako lursail horretan. 3.000 metro koadro eman arren, 600 dira eraikigarriak, eta galdaketan edo fundizioan trebeak izango diren langileak prestatuko dituzte. Horrela, ibarreko



Aretxabaletako Institutuak inguruko enpresetako eskaerei erantzuna emango die.

enpresek egiten duten eskaera ase gura dute. "Aspalditik zegoen eskaera bai Institutuaren, bai enpresen aldetik, batez ere, Ederlanen aldetik. Eskola honen bidez jende kualifikatua lortuko dugu", zioen Anjel Bergaretxe alkateak.

Oraindik goiz da eskola noizko eraikiko duten esateko, baina Iñaki Muxikaren esanetan bi urte hauen bueltan eraiki gurako luke-

te: "Prozesua hasi da orain. Proiektua egin beharra dago, eta gero eskola eraikitzeke pausoak jarriko ditugu abian. Epeez berba egitea gaitza da, baina agintaldi honetarako hartuko dugu konpromisoa".

Galdaketa jorratuko duten bi eskola baino ez dira egongo Euskal Autonomia Erkidegoan: bat Gernikan eta bestea gurean.

LABUR

Aurten ez da Aberri Egun bateraturik egingo herrian

Azken hiru urteotan Aretxabaletan egin den Aberri Egun bateratua aurten ez da egingo. Orain arteko antolatzaileek ez dute jarraitzaileak aurkitzen; herrian, gainera, oso herritar gutxi geratzen dela ikusita, pena handiarekin, baina ez egitea erabaki dute.

Idatzien gaineko liburuxka udaletxean eskura daiteke

Debagoieneko udaletako euskaraz zerbitzuek kaleratu duten *Idatzia*: gonbitak, zorion agurrak, oharrak... bilduma dagoeneko banatu dute etxeetara. Hala ere, baten batek ez badu jaso eta interesa izanez gero, udaletxera joan dadila, Euskara Zerbitzura, eta bertan emango diote.

Inersorekin bidaiak egiteko eskaerak udaletxean

Inersok erretiratuendako bidaiak antolatu ditu, eta apirilaren 30a baino lehen egin behar da eskaera. Gutxitu fisiko eta sentorialak dituztenendako ere egongo dira oporraldiak, eta eskaera egiteko epea apirilaren 15ean bukatuko da. Orriak Udaleko Prebentzio Zerbitzuan bete behar dira.

ZARAIA TABERNA

Laster zuekin berriz!

Araba ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Expres



Santakurtz, 16
943 79 23 43

**OSKAR
GARAIEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

ELKARRIZKETA

NEREA ELORZA/POXPOLIN GAZTE GAZTE-LEKUKO BEGIRALEA

"Gazteek eurek esan beharko didate zer egin gura duten gazte-lekuan"

MIRARI ALTUBE

Gazteek egindako eskaerari erantzuna emanaz 12 eta 16 urte arteko gazteendako gazte-lekua abian jartzea erabaki du Udalak. Nerea Elorza hautatu du begirale, eta lekua egokitu bezain azkar hasiko da lanean.

Noiz zabalduko duzu gazte-lekua?

Ahal bezain azkar. Lehenago zabaldu gura genuen, baina begirale hautaketa atzeratu egin zen, eta orain ludoteka zaharra txukundu guran nabil gazteak sartu aurretik.

Ludoteka egon zen tokian egongo da?

Bai, Santa Kurtz kalean. Lehen esandako moduan lokala txukuntzen nabil, eta bertako komunak ere egokitu ditzaten gura ditut.

Zerbait egongo da lokalean?

Ez, momentuz behintzat ez. Gazteek egiten duten eskaeraren arabera ikusi egin beharko dugu ekarri edo ez, baina oraingo ez.

Zein ordutegi izango du?

Aste bukaeratan zabalduko dugu, hau da, egubakoitzean, zapatuan eta domekan; baita jai bezpera eta jai egunetan ere. Ordutegia, ostera, 17:00etatik 21:00etara izango da, eta tarte



ARTXIBOA

horretan gura dutenean etorri eta joan ahal izango dira.

Zer antolatuko duzu gazteekin egiteko?

Ez nik, ez Udalak ez dugu ezer antolatuko. Gazteek eurek esan beharko didate zer egin gura duten gazte-lekuan, eta gure baliabideen arabera betetzen saiatuko gara. Sarritan huts egiten dugu gazteendako antolatutako ekintzekin; izan ere, adin tarte horrekin ez da batere samurra asmatzea, segituan aspertzen dira-eta. Horregatik gazteek eurek izan dezaten inizatiba gura dugu, ia

horrela emaitza hobea lortzen dugun.

Konpromisorik eskatzen diezu gazteei?

Konpromisorik? Ez, ordutegi barruan gura dutenean etorri eta joan ahal izango dira. Nik ez ditut hemen lotuta edukiko. Hori bai; gogoz etorri daitezen eskatuko nieke, gogoarekin eta jarrera onarekin.

Udalak jarraipena egingo dio gazte-lekuari, ez?

Bai, hala da. Poxpolin Aisialdi Taldeko arduradunek, kultura teknikariak eta prebentzio sailako teknikariak osatutako batzordeak egingo dio jarraipena.

Ez da adin tarte samurra. Ez dizute beldurrik ematen?

Lan berriek hasi aurretik beti ematen didate errespetua. Lehen Loramendi EEn lan egindakoa naiz, baita Udalak antolatzen dituen udaleku irekietan ere, eta badakit zer den gaztetxoekin lan egitea. Ikusi egin behar 12 eta 16 urte artekoekin zelan moldatzen naizen, baina ondo ustean, bestela jai daukagu guztiok.

Momentuz uztaileara arte jarriko da abian?

Bai, halaxe da. Uztaileara bitartean egingo dugu frogara, eta ekimena zelan joan den baloratu ostean, erabakiko dugu aurrera egin edo ez. Ni neu ere uztaileara arte konprometitu naiz, gero ikusi egin behar.



Aretxa taldea sinadura bilketa egiten dabil

Joan zen egubakoitzean jarri zuen abian Aretxabaletako Aretxa Plataformak sinadura bilketa ekimena. Bai AuB, bai Aretxa maiatzeko hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko behar beharrezkoak dituzte herritarren sinadurak. Horren guztia berri emateko, eta era berean, sinatutakoei eskerrak emateko prentsaurrekoa egin zuen martitzenean Aretxa Plataformak. Sinadura bilketak datorren eguaztena arte iraungo du, eta Udaleko idazkariaren aurrean egin behar da. /M.A.

LABUR

Gaztetxeko atea soldatu zuten astelehenean Udaleko langileek alkatearen aginduz

Gaztetxeko atea ixteko agindua eman zien alkateak, eta astelehenean goizean bete zuten agindua Udaleko langileek. Erabakia hartzeko arrazoi asko egon zirela esan zuen alkateak, argindarra lapurtzen ibili izana besteak beste. Astelehenean arratsalderako, ostera, gazteek gaztetxera sartzea lortu zuten. Hala ere, eta hainbat tirabira egon ostean, arazoa konpontzeko bidean ei dago.

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.
Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA



Taberna
Berri
jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67

TRIATLOIA

Aretxabaletako triatletak gertu daude denboraldiari aurre egiteko

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldean lau aretxabaletar dabilta

AMAGOIA LASAGABASTER

Dagoeneko hasi da triatloi denboraldia, eta kirolari batzuek egin dute aurreneko proba; Debagoieneko Antxintxika taldeko kideek, esaterako. Talde horretan Aitor Arranz, Oier Etxeberria, Josu Izagirre eta Asier Barrainkua aretxabaletarrak dabilta.

Antxintxika taldea iaz sortu zuten, eta, besteak beste, garai baten Arrasateko Triatloi Taldean zebiltzan triatletek osatu zuten. Eta orduan sartu ziren Josu Izagirre, Aitor Arranz eta Oier Etxeberria aretxabaletarrak. Gaur egun hiru horiei beste aretxabaletar bat gehitu zaie: Asier Barrainkua. Laurek orain dela gutxi hasi dute triatloi denboraldia.

LEHENENGO PROBA

Negu luzearen ondoren, udaberriko eguzki izpiekin batera helzen zaie triatletei euren sasoi frogatzeko garaia. Aretxabaletarren artean, batzuk besteak baino hobeto dabilta aurten. Hala, Aitor Arranzek, esate baterako, denboraldia hasi besterik ez eta Cangas de Onisko, Barakaldoko, Basauriko, Gasteizko eta Coriako duatloiak egin ditu. Aitorrek, neguan entrenamendu bikaina eginda, sasoi paregabea erakutsi du proba horietan guztietan. Oier, Josu eta Asier, aldiz, neguan lasaieago ibili dira, eta, entrena-



ARTXIBOA

Aurten ere hitzordu garrantzitsua izango dute Aretxabaletako triatletek Urkulun.

mentu saio leunagoak eginda, oraintsu hasi dira lehiatzen. Hain zuzen ere, Oierrek Oñatin egin zuen lehenengo duatloi proba martxoaren 22an; Asierrek, bestalde, Gasteizko mendiko bizikleta duatloian hartu du parte orain dela gutxi.

HELBURUAK

Aretxabaletarrek iazko mailari eutsi gura diote. Hala, dagoeneko zehaztuta daukate zein pro-

batan hartuko duten parte, gutxi gorabehera: Oierrek eta Josuk, esate baterako, Zarauzko Triatloia egin gura lukete; Aitorrek duatloiko zirkuitu osoa egin gura du; Asierrek, ostera, proba ugari ditu egutegian: Arbizuko Duatloia eta Gorkizko Triatloia, besteak beste.

Hala ere, proba horiez gainera, aretxabaletarrek ez diote ekainaren 7an egingo den Debagoieneko Triatloiari hutsik egingo.

PILOTA

Zaramagako Pilota Txapelketako finala jokatu dute bihar Akizuk eta Gardokik

Aurten Zaramagako (Araba) Pilota Txapelketako finalean Debagoieneko bi herritako pilotariek neurtuko dituzte indarrak. Hain zuzen ere, Aretxabaletako pilotariek Arrasatekoen aurka jokatu dute txapelketako azken partidua. Aretxabaletatik alebin mailako Joseba Akizuk eta Unai Gardokik jokatu dute. Gardokik eskumuturrean min hartuta dagoen Aitor Urribarren pilotariaren ordezkari jokatu du. Finala bihar, zapatua, jokatu dute Zaramagako pilotalekuan, 16:00etan.

Orain arte Aretxabaletako hainbat pilotarik jokatu dute Zaramagako Pilota Txapelketako finala. Eta sarri askotan txapela buruan bueltatu dira.

TRIALSINA

Markel eta Nagore Uriartek Open Norte Trialsin Txapelketan hartuko dute parte

Orain dela gutxi bukatu zuten Markel eta Nagore Uriarte anai-arebek Gipuzkoako trialsin norgehiagoka, eta dagoeneko gertu daude beste txapelketa baten buru-belarri sartzeko. Hain zuzen ere, etzi, domeka, Arantzazun hasiko den Open Norte Trialsin Txapelketa jokatu dute Uriartetarrek. Markelek iaz ere hartu zuen parte txapelketa horretan, eta maila ona erakutsi zuen. Orduan, bigarren sariarekin etxeratu zen. Eta, jakina, aurten ere iazko mailari eutsi gura dio, gutxienez. Nagorek, berriz, lan txukuna egitea espero du.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Tolosa

Preferentea.

Domeka, 16:30. Ibarra.

UDA-Kostkas

Infantilak.

Zapatua, 10:30. Ibarra.

PILOTA

Debarroko Txapelketa

finala

Aretxab.-Azkoiti

Seniorrak.

Egubakoitza, 19:30. Bergara.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ordizia 1 UDA 2

Preferentea.

Santo Tomas 1 UDA 1

Gazteen Euskal Liga.

Zumaiako - UDA

(bertan behera gelditu zen) Aretxab. 22 Intxaurren 14

Big. erregionala. Igoera fasea.

Behobia 2 UDA 3

Gazteak. Igoera fasea.

UDA 4 Bergara 2

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 1 Sorluze 0

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Udaberriko Torneoa

Aretxab. 22 San Esteban 12

Gazteak.

Aretxab. 22 Bergara 15

Gazteak.

Aretxab. 22 Intxaurren 14

Nagusiak.

Debarroko Txapelketa

Aretxab. 22 Arrasate 7

Gazteak.

Aretxab. 22 Arrasate 19

Helduak.

J.J. IRURE
ITURBENTZAN

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Banatzaileak

Egubakoitz arratsaldeetan GOIENKARIA banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 79 21 00 telefonora
edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

Aretxagazeta

Lasai

Mirian Manteca
masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak

PAGALDAI

Opari denda
Burrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Ezkontu
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 11 / 121. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Indar militarren aurkako aldarrikapena eginez ospatu zuten Antimilitarista Eguna

AMAGOIA LASAGABASTER

Espero baino jende gutxiago ibili arren, Antimilitarista Eguna arrakastatsua izan zela esan dute Gazte Asanbladako kideek. Militarren lanaren gainean antzetzutako parodiak, bazkari herrikoiak eta gaztetxeko kontzertuek batu zuten jende gehien.

Joan den asteburuan, apirilaren 5ean, Eskoriatzan ez ezik Bergaran eta Arrasaten ere jaialdiak egin zituzten. Eta beharbada, horregatik uste baino jende gutxiago etorri zen Eskoriatzako Antimilitarista Egunera. Edozelan ere, antolatutako ekitaldi guztiek aurrera egin zuten. Gazte Asanbladakoen esanetan egun polita izan zen eta hurreratutako guztiek ondo baino hobeto pasatu zuten.

PARODIA

Gazte Asanbladako kideek Antimilitarista Eguneko hiru ekitaldi hauek nabarmendu gura izan dituzte: herri bazkaria, kontzertuak eta militarren gaineko parodia. Herri bazkarian 70 lagun inguru batu ziren herriko plazan



Militarren lan zakarra gaitzesteko antzezlan umoretsua egin zuten Eskoriatzako kaleetan zehar Gazte Asanbladako kideek.

eta giro ezin hobea sortu zela esan dute. Gaztetxean egindako kontzertuei dagokienez, antzeko giroa izan zen han ere. Arratsaldean zein gaualdean, gazteek kon-

zertu bikainak entzuteko aukera izan zuten, eta musikariak zein entzuleak gustura gelditu ziren. Azkenik, azpimarratzekoa da Eskoriatzako kaleetan zehar

Gazte Asanbladakoek egindako antzezlanak izandako arrakasta. Parodia horrek balio izan zuen Irakeko eraso militarra salatu eta gaitzesteko.

Jende gutxi etorri arren, hurreratutakoek ondo pasatu zuten eguna

Herri bazkarian 70 lagun inguru batu ziren herriko plazan eta giro ezin hobea sortu zen

Militarren gainean egindako parodiak Irakeko eraso militarra salatzen balio izan zuen



Elurretan ondo baino hobeto herriko gazteak

Eskoriatzako 24 gaztetxo asteburuan Astunen egon ziren eskiatzen. Eguraldi ezin hobea izan zuten, eta domekan azkeneko minutu arte, hau da, pistak itxi arte, arduradunak ezin izan zituen gazteak autobusera eraman. Joan den astean, bestalde, Arizmendiko 42 ikasle Formigalen egon ziren egun pasa. Ondokoa egun hartako argazkia. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina hauek ere, pozik itzuli ziren eta txangoa noiz errepikatuko zain daude.

LABUR

Errolda ikusgai dago udaletxeko bulegoetan

Datozen maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea izango duten herritarren errolda ikusgai egongo da apirilaren 7tik 14ra bitartean udaletxean.

Zerrendak udaletxeko harreraren egongo dira. Herritarrek euren datu guztiak ondo dauden ikusteko goizean, 10:30etatik 13:30era izango dute udaletxera joateko aukera. Zerrendetan agertzen ez direnek lehenbailehen egin beharko dute erreklamazioa.

AGINTALDIARI BEGIRATUA

EDORTA ZUBIZARRETA/ESKORIATZAKO ALKATEA

“Udalbatza osatzen duten zinegotziek lana gogotik egin duten dudarik ez dut”

AINTZANE GARDOKI

Legealdia amaitzeko hila-bete eta erdi eskas falta denean, Eskoriatzako alkateari legealdiaren gaineko balorazioa egiteko eskatu diogu. Orokorrean pozik ageri da Edorta egin duten lanarekin. Bere ustez udalbatza osatu duten kideek lana gogotik egin dute.

Agintaldia amaitzean dago. Zer nolako balorazioa egiten duzu?

Legealdi hasieran finkatutako helburu asko, gehienak, bete ditugu, hortaz, orokorrean balorazioa ona egiteko moduan nagoela uste dut. Nire ustez udalbatza osatzen duten taldeek gogotik egin dute lan, eta emaitzak jasotzerakoan lan horren fruitua ikusten da.

Zeintzuk izan ziren hasieran finkatu zenituzten helburuak?

Legealdia hasi zenean, ezertan hasi aurretik, udalbatza osatu dugun taldeek bakoitzak hauteskunde programan aurkeztutakoak guztion artean lantzeko konpromisoa hartu genuen. Helburu konkretuez gain, herriaren kudeaketa nola egin ere finkatu genuen legealdiaren hasieran.

Zeintzuk dira bete dituzten helburuak?

Bete diren helburuen artean lehena, udalbatza osatzen duten ordezkari guztiek herriaren kudeaketan parte hartu izana da.


Bestetik, eta batzuk aipatzeagatik, Santa Marina ingurua gartzeko Hirigintzatik beharrezko gestioak egin ditugu. Udaletxea zaharberritu dugu eta barrera arkitektonikoak kentzeko lan izugarria egin dugu. Euskararen aldeko konpromisoarekin jarraitu dugu; euskaltegiari behar zuen eraikina eman diogu. Ludoteka ere abian jarri dugu, Biblioteka berria oraintsu inauguratu dugu, Museo Eskola izango den Ibarraundi baserria zaharberritzen gabiltza...

Eta zeintzuk dira egin barik gelditu direnak?

Tarte honetan gelditu zaizkigu, bai, beste batzuk egiteko. Horien artean, pentsatuta genuen urbanizazioaren bat edo beste. Hasierako helburuen artean Auzotarako batzordea osatzea genuen gogoko, baina ez gara egitera heldu. Udalbatzak egindako lan asko eta asko ez dugu eskoriatzarrei helarazten jakin. Ez dugu behar bada herritarrekin oso harreman estua izaten asmatu.

Udalbatza osatzen duen taldeak batzordeka lan egin du. Funtzionamendu ona izan da?

Lau batzorde nagusitan bana-



“Orokorrean alderdien arteko harremana ona izan dela esan daiteke”

tuta egin dugu lan; Ogasuna, Hirigintza, Kultura eta Ongizatea. Dena dela, batzorde bakoitza azpibatordetan banatuta egon da. Azpibatorde bakoitzaren ardura zinegotziek izan dute.

Zein nolako harremanak izan dituzue beste alderdiekin? PSOEko zinegotzia gutxitan agertu da udaletxean.

Orokorrean alderdien arteko harremana ona izan da. Momentu konkretu batzuetan egon dira desadostasun batzuk, baina orokorrean giro onean egin dugula lan esango nuke.

PSOEko zinegotziari dagokionez, legealdiaren hasieran beste edozein zinegotzik moduan parte

“Finkatutako helburuak bete asmoz, zinegotziok ilusioz egin dugu lan”

hartu zuen udalaren kudeaketan. Berak zuen Kulturako kiroletako azpibatordetaren ardura. Lan arazoak zituela eta, dimisioa aurkeztu zuen. Geroztik, ez da udaletxera etorri. Dena dela, Udalbatzan parte hartu zuenean ez zen inolako bereizketarik egin, bera, guztien artean, beste bat zen.

Zer eman dio legealdi honek herriari?

Hasieran finkatutako helburuak betetzeko asmoz, zinegotziok ilusioz egin dugu lan. Herriaren alde ilusio handiz egindako lana eman diogula herriari pentsatzen dut.

Herritarrek Udalbatza honetatik hurbil sentitu direla uste duzu?

“Publikoak diren Osoko Bilkuretan herritarren presentziarik ez da izan”

Ahalegindu gara herritarrekin harreman zuzena izaten. Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiari esker, herritarrek batzordeetan parte hartzeko aukera dute, baina herritarrek ez du udaletxera etortzeko ohiturarik. Publikoak izaten diren Osoko Bilkuretan, adibidez, lau urte hauetan, ez da herritarren presentziarik egon.

Herriaren interesa politikaren ginetik egoten da?

Politika orokorrari dagokionez urte hauetan hainbat gai egon dira. Horiek kontuan hartzen baditugu ere, legealdiaren hasieran finkatutako eginbeharrei erantzuteko herriaren aldeko kudea-

ketan jarri dugu gogoia.

Zeintzuk izan dira bizi izan dituzun momenturik onenak? Txarrak ere izango zen, ezta?

Momentu honetan ez dut ez onetan eta ez txarretan pentsatzen hasi gura. Onak eta txarrak izan dira, hori bai! Garrantzitsuena egindako lana da. Herriaren alde lan egiteko konpromisoan, zinegotzien arteko inplikazioa lortu izana pozgarria da. Lanaren emaitzak hor daude, eta bakoitzak bere ondorioak aterako ditu.

Badago egiten utzi ez dizutenik?

Lehen aipatu dudan moduan alderdien arteko giroa ona izan da. Osoko Bilkuretarik gairik gehienak batzordeetan landuta joan izan dira eta gehienetan, txikikeria batzuetan izan ezik, ez dugu inolako arazorik izan, eta gure arteko adostasuna erabatekoa izan da. Hortaz, ez didate ezertxo ere ukatu.

Askotan, aldiz, guk gauza bat era batean egin gura izan arren, Aldundiak edo Jaurlearitzak, betearazten dituzten legeak hain zorrotzak direnez, ukatu edo beste era batera egin behar izan ditugu.

Bizi dugun egoera ikusita, nola ikusten dituzu maiatzeko hauteskundeak?

Duda-mudaz gainezka. Oraindik aurkezterik izango ete dugun ez jakitea penagarria dela uste dut. Espainiako gobernuaren mehatxupearan bizi gara momentu honetan; Gobernu hori bere ideiekin bat ez datorren edozein proiektu ilegalizatzen prest dago, eta hori ez da inondik inora bidezkoa. Iruzur egiten digu Aznarren gobernuak, eta tamalgarria da lau urtean Eskoriatzan agintean egon den alderdiak datozen hauteskundeetan aurkezteko modurik ez izatea.

Zuk zeuk, baduzu udaletxean jarraitzeko asmorik?

Ez, ez dut alkate lanetan jarraitzeko asmorik; hortaz, errelebu emango diot herriaren alde lan egin gura duenari.


Herri txiki baten alkate izatea gaitza da?

Alkate izatea ez da samurra, baina borondatearekin eta aldamenen lantalde ona izanda, gauzak egin egiten direla uste dut. Dena dela, lehenago aipatu dudan moduan herritar bakoitzak atera beharko ditu egin ditugunaren eta ez ditugunaren ondorioak.


Zuri zer eman dizu alkate izateak?

Batez ere, herria eta herritarrek hobeto ezagutzeko, edo, behintzat, beste ikuspuntu batetik gauzak ikusteko aukera paregabea eman dit alkate izateak.


Beste udal taldeen iritzia




JUAN CARLOS BENGOA
EA



IÑAKI ASTIAZARAN
EAJ



JABIER ZUGASTI
EB-IU



MARTIN OLABE
ELIZATEEN ELKARTEA

Orokorrean, herriaren onerako lanean jardun dugula esango genuke. Hasieran, eta ezertan hasi baino lehen, alkateari udalbatzan parte hartzeko gutxieneko akordio batzuk adostu behar genituela eskatu genion: landu beharreko programa eta hauek lantzeko era, besteak beste. Akordioa lortu genuenez, buru-belarri hasi ginen lanean; Euskara, Hezkuntza, Lanak eta Zerbitzuak eta Hondarea azpibatzaordeak landu ditugu guk gehienbat.

Udal Euskaltegiarendako eta Axtrokiarendako egoitza berria egin, haurtzaindegi zerbitzua, kaleen seinalizazioa eta Hiri-guneko mantenimendu plana landu ditugu, besteak beste. Horretaz gain, beste batzorde batzuei gure laguntza eskaini diegu. Beste batzorde batzuetatik egin diren lanekin guztiz ados egon ez bagara ere, guztiok herriaren alde jarrera baikorrarekin lan egin dugula uste dugu. Bestetik, kanposantua berriztu eta areto nagusi bat egokitzeko, adibidez, ekimen falta izan dugu.

Positiboki baloratzen dut lau urteotan Udalean egindako lana. Politikak dakartzan hika-mikak alde batera utzi ditugu, eta herriaren alde ibili gara lanean. Alkateak zinegotzi bakoitzari bere alorrean lan egiteko askatasuna eman dio, eta zinegotziok geure neurrian gauzak ondo egiten saiatu gara uste dut.

Legealdian zehar aurrera eroan diren proiektuen artetik zaharren egoitzako lanak, Eguneko Zentroa, eta herriko oztopo arkitektonikoak kentzeko Insero eta Oncerekin egindako hitzarmena aipatuko nituzke; batez ere Ongizate sailatik egin direlako eta zuzeneko jarraipena egin diedalako.

Udalean egon garenok elkarri lagundu diogula iruditzen zait, gure helburua herriaren alde lan egitea izan da-eta beti, eta ez komunikabideetan agertu ohi den politika merkea egitea. Orain herriak esan beharko du azken lau urteotan ondo lan egin dugun edo ez.

Bukatzean dagoen legealdia baloratzerakoan 11 lagun dituen udalbatzara aztertzen hasi behar dugu. 11 lagun horietatik zazpi (Euskal Herritarrok taldeko bost, PSE-PSOE taldeko bat eta EB-IU taldeko beste bat) argi eta garbi sozialistat daukate bere burua, hau da, siglak, ideiak, programak... ezkertiarak ditu.

Hala ere, berehala ikusi genuen zein zen benetako egoera, zazpi zinegotzi ezkertiarrek ematen zuten gehiengo irudi hutsa zela hain zuzen ere. PSE taldeko ordezkariak udal jarduera murriztu egin behar izan zuen heriotza mehatxuak izan zituelako; eta Euskal Herritarrok taldea, argi dagoen moduan, ez da sozialista.

Ikuspegi horrekin zaila da giza-zuzentasuna bultzatzen duen proiektu aurrerakoia eta solidarioa aurrera eroatea. Hortaz, aipatutako legealdia lehenbailehen ahaztu, eta ahal den neurrian aurrera egitea da gure asmoa, garai hobeak eta emaitza hobeak lortzeko itxaropenarekin.

Legealdi osoan udalbatzara osatu dugun kideon artean egon den lagun eta lan giro polita nabarmendu gura genuke. Hori horrela, proiektuak guztion adostasunarekin eroan dira aurrera.

Elizateen Elkartetik bultzatutako proiektuak errepideen hobekuntzak, ur-horniketak eta beste hobekuntza batzuk egiteko izan dira. Elizate guztien artetik gehien bultzatu dena, gainera, Gellao izan da; izan ere, aurreko urtetan Eskoriatzatik banantzea gura zuela-eta sortutako eztabaidaren ondorioz inbertsio gutxien jasotakoa zen.

Egin barik geratu diren lanen artean ondorengoak aipatzea gura genuke. Batzuk, gainera, aurtengo udal aurrekontuan aurreikusi ditugu: Marin, Zarimutz eta Mazmela elizateetara telebista antena zerbitzua eroatea; Arlabaneko errepidera sartzeko hainbat elizatek duten arazoa konpontzea; elizate bakoitzean lokal bat egotea bakoitzak bere nortasuna mantentzeko; eta zabor bilketa egitea elizateetan.

“Guztiok herriaren alde jarrera baikorrarekin lan egin dugula uste dugu”

“Alkateak zinegotzi bakoitzari bere alorrean lan egiten utzi dio eta zinegotziok lana ondo egiten saiatu gara”

“Aipatutako legealdia lehenbailehen ahaztu, eta ahal den neurrian aurrera egitea da gure asmoa”

“Bultzatutako proiektuak errepideen hobekuntzak, ur horniketak eta beste hobekuntza batzuk egiteko izan dira”

ANALISIA

Herriko lau elkarteren begirada laburra legealdiari

Axtroki Euskara Elkarte

Euskararen aldeko jarrera ona azaldu du orokorrean Udalak lau urteotan. Udal barrura begira, lehendik zetorren euskara planarekin jarraitu du eta euskara teknikariaren figura finkatu du, besteak beste. Kanpora begira, berriz, legealdia hasi orduko Tortolis ludotekari bultzada ematea tokatu zitzaion. Euskal Txokoa prestatu zuen eta euskaltegiari eta Axtrokiri lekua egin bertan. Ibarreko Euskara Elkarteek Goiena Komunikazio Zerbitzuak sortzeko egin genuen ahaleginean Udalaren babesa izan genuen.

Gazte Asanblada

Badatoz. Lau urte pasa dira eta hemen dira berriro udal hauteskundeak. Inolako duda barik oso positiboa izan da Udalak lau urteotan egindako lana; Kultura batzordea osatzeko eman dituzten fruituak, izan ere, herriak gehien nabaritu duen aldaketa kultur alorrean egon den eskaintza zabala izan da. Batzordea osatzea ideia ona izan bazen ere, askotan, beharbada, batzordeaz egin den erabilera ez da aproposena izan. Gazteenganako jarrera positiboa izan du Udalak; gaztetxearen kontuarekin aurrera egin du, besteak beste. Eskerrik asko!

Olazar Erretiratuen Elkarte

Orokorrean Olazarretik erretiratuok amaitzean dagoen legealdian gainean egiten dugun balorazioa ona da; zinegotziek lan handia egin dutela esango genuke. Behar bada lehenagotik zetozen hainbat proiektu bultzatu eta egin dituzte; Udaletxea zaharberritzea, edota San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetan egindako lana, besteak beste, lan onak direla pentsatzen dugu. Kaleak hobeto zaintzen eta herriko hormak garbitzen, berriz, nahiko hanka-motz ibili direla esan dezakegu. Itxura kaskarra ematen dio herriari horrek.

Amuska Emakumeen taldea

Legealdi hau osatu duen udalbatza behar bada aurrekoak baino dinamikoagoa izan dela esango genuke. Proiektu ugari bultzatu dituzte. Etxebizitzak egiteko orduan ere ez dira atzera begira gelditu. Beste gauza askotan, berriz, motz geratu dira. Kultura mailan eskaintza handiago eta hobe eskaini digute zalantza barik herritarro. Legealdiaren hasieran Emakumearen batzordea sortu zuen Udalak baina, guri dagokigunez, behintzat, ez du oso ondo funtzionatu. Harreman puntualak izan ditugu batzordearekin.

LABIDEA DENDA ETA TURISMO BULEGOA

Denda eta bulegoko arduradunak pozik daude izan duten harrerarekin

AINTZANE GARDOKI

Labidea denda eta Turismo Bulegoa zabaldu eta astebetera zein nolako harrera izan duten galdetu diegu Amaiari eta Aitziberri. "Pozik, oso pozik gaude. Herritar asko etortzen da ardo bat edo kafetxo bat hartzera egunero. Gaztetxoak ere hementxe izaten ditugu. Taberna moduan oso ondo funtzionatzen du Labideak, eta denda moduan, agian, nobedadea


delako izango da, baina asko ari gara saltzen; hestekiak eta gazta, batez ere, ikaragarri ari gara saltzen. Museoa bisitatzera datozenak gero eta gehiago dira, eta asteburuan, jende asko etorri da Labideara. Joan den zapatuan 50 laguneko taldeari ia erantzun ezinda ibili ginen", dio harro Aitziberrek. Bulego Turismoa, bestalde, abian jarri dute, eta dagoeneko, bisita ugari ei dituzte datozen asteetarako.



Herritar askok egunero egiten dute kafetxoa hartzeko sartu irtena Labidea dendan.

AINTZANE GARDOKI

TXUTXUMUTXUA



Frontoian eta bizikletan gogor emakumeak

Aspaldiko urteotan inolako kirolrik egiten ez zutela-eta, herriko lau emakumeek duela hilabete pare bat gorputza astintzen hasteko erabakia hartu zuten. Arratsaldero, umeak eskolan utzi eta gero, erraketa hartu eta frontoian ibiltzen dira. Hasieran makinatxo bat pilota galdu bazituzten ere, azkenaldian jokoa asko hobetu dutela jakinarazi digute. Bizikletan ere kilometro ugari egin ei dituzte.

LABUR

Maiatzean eskolan eman beharko du botoa herritarrak

Maiatzaren 25ean egingo diren udal hauteskundeetan herritarrak Gatzagako eskolara joan beharko du botoa ematera. Urtarrilaren 11an Garro jauregian izan zen suteak eraginda hartu zuen Udalak erabakia. Beraz, maiatzean botoa eskolan beharko dute herritarrek. Bestetik, apirilaren 14a bitartean botoa emateko eskubidea izango duten herritarren errolda ikusgai egongo da udaletxeko bulegoetan.



EDURNE



ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

Elektroterapia.

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA

~

Eduardo Gorosari, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

ESKORIATZA

Tfno 714345



ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

aroztegia leniz

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingerugarako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)



MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA



ALTUNA
HARATEGIA
San Pedro 3
ESKORATZA



ANGELINES
AUTOZERBITZUA
Mitarte 16
ARETXABALETA



BEATRIZ
ARRANDEGIA
Otalora 19
ARETXABALETA



BENGOA
HARATEGIA
Durana 9
ARETXABALETA



CHARTER
JANARI DENDA
Aranburuzabala 3
ESKORATZA



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
Errekabarren 14
ARETXABALETA



ETXABE
HARATEGIA
Durana 4
ARETXABALETA



GANTXEGI
HARATEGIA
Santa Kurtz 5
ARETXABALETA



IMANOL
JANARI DENDA
Gorbea 8
ARETXABALETA



IOSU
HARATEGIA
Mitarte 1
ARETXABALETA



JON
HARATEGIA
Loramendi 1
ARETXABALETA



LEIBAR
ARRANDEGIA
Loramendi 1 / Mitarte 1
ARETXABALETA
Aranburuzabala 7
ESKORATZA



PAGALDAI
HARATEGIA
Gaztainadui 15
ESKORATZA



ZUBIA
HARATEGIA
Santa Ana 11
ESKORATZA

OSAGAI ONENAK GURE KONTU

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.

1
APIRILAREN

EUSKAL HERRIAK

ZURE SINADURA BEHAR DU!

ETIK *aurrera*



GIPUZKOAKO UDAL IDAZKARITZA GUZTIETAN eta NOTARITZETAN

ZATOZ SINATZERA!

BERGARA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Roberto Rafael Oliver Puertolas (Notaritzza)

Ibargarai 20 • BERGARA

Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:00-17:30

943 76 10 73

SINADUREN BILKETARI BURUZKO ARGIPENETARAKO GUNEAK

948 21 36 01  www.aubilgunea.org

DIRU LAGUNTZA BANCO DE VASCONIA 0095 4638 17 0600206470

FAXISMOARI ESAN OZENKI

50.000 BAIETZ!